

KOSTUEN EGITURA

Izatez gure proiektuak diruari dagokienez ez dauka gastu handirik. Izan ere, interesatuko litzaiguke herriaren erdigunean jartzea etxetxoak; gastu nabarmenenak etxetxoak egiteko materiala eta ontziak izango dira. Etxetxoaren barruan egongo dira kokatuta ontziak, eta horien barruan gordeko dira elikagaik, ez bustitzeko eta egoera onean egoteko. Janari hori nahi duenarentzat izango da, beti ere musu-truk, esanak esan, lehentasuna izango dute janari premian dagoen jendeak. Hau da, gure proiektuaren lehen jomuga beharra dutenei laguntzea izango da.